



TREBAKUNTZA 2015-06: ORTOGRAFIA: H hizkia

OHARRA: izartxoaz eta letra etzanez idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Azken Jai batzordean **amabi** lagun elkartu ginen.
2. * Alkate **orrek** herritarren konfiantza bereganatu du.
3. * Ba **ahal** dakizu idazkaria nora joan den? **Zihur** al zaude?
4. * Langileak **amaiketako** egitera joan dira.
5. * Zure **maai** gainean geratu da bihar Osoko Bilkuran onartu behar dugun agiria.
6. * Bertso saioa **dohan** izango da, baina saioaren ondorengo afaria ez da **doainik** izango. Afariaren salneurria 20 eurokoa izango da.
7. * Astelehenetik aurrera **arrera** plana martxan egongo da. Gainera, batzuei **harreta** berezia eskaini beharko diegu.
8. * Krisiak eragindako murrizketengatik, Altzoroteko Udalak erabaki du ez duela langilerik kontratatuko. **Hare** gehiago, egoera ekonomikoak **obera** egiten ez badu, langileei soldata murriztea aurreikusi dute aurrekontuetan.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Sarritan, ez dugu jakiten noiz erabili behar den H hizkia. Hemen lagungarri izan daitezkeen argibide batzuk:

- Bi bokal berdin jarraian ditugunean, bokala + hatxea + bokala: mahai, mehe, mihi, ohol, zuhur (salbuespena: haatik).
- Erakusleak H hizkiarekin idatzi behar dira: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek, honek, horrek, hark...
- Normalean, zenbakiak (edota zenbakietatik datozen zenbait izenek) H hizkia hartzen dute: hamar, hamaika, hamabi, hoge, hogeita bat, hogeita bi, hirurogei, hamaiketako...

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

- Azken boladan, askotan ikusten dira nahastuta *al* eta *ahal*. Lehenengoa galderak egiteko erabiltzen dugu: “Etorriko **al** zara bihar?”. Bigarrena, aldiz, ahalera adierazteko: “Ez dakit joan **ahal** izango dudan”.
- Argibideok lagungarri izango zaizkizulakoan, hona hemen zalantzak eragiten dituzten hitz batzuen forma zuzenak:

Hatzerekin idaztekoak: dohainik, aholkua, aholkularia, ahoa, behintzat, hila(betea), hilerria, hotsa, hutsa, hustu, ihes(i), mehea, oihana, oihu, leiho, lehoi, lehiaketa, harea (=hondarra), uholdea, hurbil(du), zehar, harrera...

Hatxerik gabekoak: doan, altzaria, amaiera, antza, arma, arra, auzia, auzoa, ibaia, ilargia, inauteriak (eta ez *ihauteriak), jarduera (eta ez *iharduera), ilea, leuna, saguzarra, on (baina hobe hitza h-rekin), are (are gehiago), urrun(du), ziur, arreta...

KONTUZ!

Gaztelaniatik hartutako hitz batzuek H hizkia galtzen dute euskaraz: umorea, umila, abila, omenaldia, ospitalea...

Beraz:

1. Azken Jai batzordean **hamabi** lagun elkartu ginen.
2. Alkate **horrek** herritarren konfiantza bereganatu du.
3. Ba **al** dakizu idazkaria nora joan den? **Ziur** al zaude?
4. Langileak **hamaiketako** egitera joan dira.
5. Zure **mahai** gainean geratu da bihar Osoko Bilkuran onartu behar dugun agiria.
7. Bertso saioa **doan** izango da, baina saioaren ondorengo afaria ez da **dohainik** izango. Afariaren salneurria 20 eurokoa izango da.
8. Astelehenetik aurrera **Harrera** plana martxan egongo da. Gainera, batzuei **arreta** berezia eskaini beharko diegu.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

9. Krisiak eragindako murrizketengatik, Altzoroteko Udalak erabaki du ez duela langilerik kontratatuko. **Are** gehiago, egoera ekonomikoak **hobera** egiten ez badu, langileei soldata murriztea aurreikusi dute aurrekontuetan.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)
- Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Ibon)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99